

AHOTSAK PLANETAREN ALDE

HELBURUAK

- Klima-aldaketari buruz beste haur batzuek dituzten iritziak, beldurrak eta ideiak ezagutzea.
- Garapen iraunkorrari buruz geuk ditugun ideiak eta proiektuak adierazteko gai izatea eta haiek hedaraztea.
- Gure ingurunean aldaketak lortzeko konpromisoa hartzea, aukera emango diguna ingurumen osasungarriago batez gozatzeko, proiektuak garatzen ikasteko eta gure komunitateko arazoen konponbidean parte hartzeko.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Bideoak:
<https://www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/bideoak-haurren-eskubideak-klima-aldaketa>
- Ikasgelarako zereginen koaderno pertsonalizatua hemen deskargatu daiteke:
www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

LAGUNTZA-MATERIALA

- Eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzako jardueren gida eta baliabideak, hezkuntzari, haurren eskubideei eta klima-aldaketari buruzkoak, hemen eskuragarri: unicef.es/eus/educa

Klima-aldaketarekin zerikusia duten arazoak ezagutzea, iritzi kritikoa eta informatua eratzeko gai izatea eta iritzi hori adierazteko askatasuna eta babesa izatea, funtsezko aurreneko pausoak dira ingurumena babesten lagunduko duten ekintzekin konpromisoa hartzeko. Jarduera honek gure ingurunean ingurumen-arazoekiko jarrera jakin bat hartzea proposatzen digu, ikasgelan edo taldean aurrera eramateko izango den proiektu bateratu batean pentsatzera eramango gaituena.

Jarduera prestatzea

Jarduera prestatzeko ondoko jarduerak proposatzen ditugu:


■ Gure iritziek balio dute

"Ahotsak klimaren fronte-lerrotik" eta "Klimatizatu zaitetz" bideoak proiektatu-ko ditugu ikasgelan. Bideo horietan ikusi ahal izango dugu nola adin desberdinetako haurrek adierazten dituzten beren kezkek klima-aldaketari buruz, baita gertakari horri aurre egiteko beren ideiak eta proposamenak ere. Ikasgelan ari gaitzeko bideoez, proposatutako ideiak onak edo txarrak iruditzen ote zaizkigun aztertu gabe, baina haur eta nerabe guztiak eragiten dituzten gaiei buruzko informazioa eta hezkuntza izateko eskubidea dugula baloratu, baita gai horiei buruz gure iritzia ematekoa ere.

■ Ekintzaren adibide bat

Wijsen ahizpen istorioa ezagutu berri dugu: beren ingurunean, ingurumena jasaten ari den kalteak eteteko proiektu bat garatu dute.

Melati eta Isabel Wijsenek eginkizuntzat dute bizi diren uhartetik –Bali (Indonesia)– bertako itsasoak inbaditzen dituzten plastikozko poltsak kentzea. Plastikozko poltsak ia suntsiezinak dira eta mendeak iraun ditzakete. Hala eta guztiz ere, pentsatu gabe erabili eta botatzen dira. Gehienek ozeanoak kutsatzen dituzte azkenean, eta kalteak sorrarazten dizkiote itsasoko bizitzari; gainerakoak zabortegetan errausten dituzte eta, ondorioz, dioxina toxikoak igortzen dituzte atmosferara.






10 eta 12 urte zituztenean, Melatik eta Isabelek beren ikaskideen babesa lortu zuten eskaerak egiteko, hondartzak garbitzeko eta baita greba bat egiteko ere, eta azkenean, Baliko gobernatzailerak konbentzitzea lortu zuten 2018rako uhartera plastikozko poltsetatik libre deklaratzeko konpromisoa har zezan. Pegatina bat landu zuten tokiko dendek plastikozko poltsak ez zituztela banatzen jakinarazteko. "Ez utzi inoiz inork zuri esaten gazteegia zarela edo ez dituzula gauzak ulertzen," dio Isabelek. "Ez gara zuri esaten ari erraza denik. Zuri esaten ari garena hauxe da, merezi izango duela."

Gaur egun, hezkuntzako liburuxka bat lantzen ari dira ahizpak, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua, euren poltsak material biodegradagarriekin egiteko moduari, hondakinen kudeaketa eraginkorrari eta kutsadurari buruzko informazioarekin. "Hezkuntzarik gabe ez dago aldaketarik," dio Melatik.

Jarduera garatzea

Gure ingurunean garatu ahal izango dugu ingurumen-proiektu bat ideiatu, planifikatu eta burutuko dugu, partaidetzarako eta ingurumen osasungarri baterako ditugun eskubideak erabiltzeko aukera emango diguna. Helburu partekatua aukeratuko ditugu guztion artean eta banakoaren xedeak eta erantzukizunak zehaztuko ditugu.

Gure zereginen koaderno



Adibide inspiratzaileak ezagutu ondoren, geure eginkizuna zein izango den pentsatu eta abian jar dezakegu. Lehenengo hiru hilekoa izango dugu ikasleak lan-taldetan antolatzen eta metodologia bat eta helburuak finkatzeko, ondoren, ahal izanez gero, gure proiektua azaroaren 20an, Haurren Nazioarteko Egunean aurkezteko, nahiz eta eskola-agendara ondoan egokitzen diren epeei jarraitu ahal izango zaien.

Taldearentzako edo ikasgelarako zereginen koaderno pertsonalizatua hemen deskargatu daiteke: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

Ez ahaztu zure esperientzia partekatzen gure blogean www.unicef.es/eus/educa/blog edo sare sozialetan #1001proyectosXelPlaneta hashtag-ekin, hezkuntza-komunitate osoak ezagutu ditzen zuen proposamenak eta aldaketa global bat lortzeko inspirazio-iturritzat erabili ahal izan ditzen. **Denon artean lortu ahal izango dugu!**

#1001proyectosXelPlaneta